



## Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: 1. saria

### **ITSASNEREN GERTAERAK**

Naia Garro Fernández

Txerriek hegan egiten zuten garaian ... beno, beno, beno, istorio hau ez zen gertatu duela urte asko egia esanda. Aurkezten naiz, Itsasne dut izena. Nire ustez trebea eta pixka bat bihurria naiz, baina bakarrik pixka bat. Hau idaztea erabaki dut nire gertaerak kontatzeko, baina hau ez da eguneroko bat, hori oso gauza txepela da eta.

Hau idatziko dudan lehenengo gertaera da. Orduan, oso ongi idatzi behar dut. 2014ko ekainaren 26an, (e-e, kontuz, oraindik data gogoratzen dut) nire amonaren etxean nengoen. Egia esan, nire amonaren sukaldean. Nire urtebetetzea zen eta nire bizitzako ideiarik hoberena "sukaldatzea" zen (jajaja). Sukaldaria nintzela uste nuen edo zer? Bitartean, nire aitona lantegian zegoen eta nire amona egongelan. Gauza da, armairu guzti-guztiak ireki nituela eta janari guztia bol batera bota nuela. Gauza arraro bat sortu nuen; lehenengo marroia zen, baina gero gauza berde batean bilakatu zen. Oraindik gogoratzen naiz, ze nazkagarria zen!! Nire amona etorri zenean aho bete hortz geratu zen. Beno ... arrazoia zuen horrela jartzeko, baina gero sekulako haserrea bota zidan. Geroago, nire aitona etorri zen eta haserrea bota zidan ere. Gero gurasoak ... baina bost axola zitzaidan, nire urtebetetzea zen eta ez nien errietei kasurik egin.

Beste behin nire ikasgelan nengoen ... beno, orririk gabe geratzen ari naiz. Beste egun batean idatziko dut, edo agian ez. AGUR!!